

04

2019

er  
ai  
ki

aldizkari  
sindikala

## Klase arrakalarik gabeko herrialde eleaniztun bat helburu

Euskadiko CCOO sindikatuaren proposamenak,  
euskararen, bizikidetzaren eta euskal  
gizartea kohesionatzearen aldeko  
hizkuntza politika baterako



CCOO

euskadiko langile komisioak

---

# **Klase arrakalarik gabeko herrialde eleaniztun bat helburu**

Euskadiko CC00 sindikatuaren proposamenak,  
euskararen, bizikidetzaren eta euskal gizartea  
kohesionatzearen aldeko hizkuntza politika baterako

**Edizioa:** Euskadiko Langile Komisioakeko  
batzorde exekutiboa  
2019ko azaroa

# AURKIBIDEA

---

## **1 - Sarrera: herrialde eleaniztun bat**

## **2 - Euskara, enplegarritasuna eta klase arrakala**

- 2.1 Euskara doan ikastera jotzeko urratsak
- 2.2 enpresa pribatuan doan ikasteko EUSKERALAN liberazio programa

## **3 - Euskaltegi sarean hobetu beharrekoak**

- 3.1 Eskaintako ikastaroen eta ordutegien tipologia koordinatzea
- 3.2 Sektoreko lan baldintzak

## **4 - Euskara maila egiaztatzea, “agirizentrismoa” eta errebalida sistema gaindituta**

## **5 - Hizkuntza eskakizunak, aldaketak eta belarriprest izatea onartu beharra duen sistema ezinbesteko bat, elkarbizitza eleaniztun bat lortuko badugu**

## **6 - Euskara Estatuko Administrazio Orokorrean, eginkizun dagoen defizit luze bat**

- 6.1 Estatuko Administrazio Orokorrak Euskadin arreta ele bitan ematea
- 6.2 Eleaniztasunaren aldeko Estatuko legea

# 1 - Sarrera: herrialde eleaniztun bat

CCOOren ustez, Euskadiko herritar guztien ondare dira euskara eta gaztelania. Aspaldi honetako gure historian, errealitate hori alde batera uzten edo gutxienesten saiatu dira hainbat talde eta jarrera politiko. Akats horrek ez du laguntzen behar dugun adostasuna eta ulermen giroa sortzen. Euskadin ezin da tratatu hizkuntza bietako bat ere arrotza balitz bezala.

Hizkuntza ofizialak dira euskara eta gaztelania Euskadin, eta biztanleriaren espektro handi batek erabiltzen ditu, bai bata bai bestea. Nahiz eta egia den arlo gehiagotan gaztelania dela ezarpen eta erabilera handiena duen hizkuntza; era berean, euskararen erabilera nagusi da zenbait eremu geografikotan.

Bizikidetzarako hain gai sentikorra izanik, pertsonen arteko komunikazioari buruzko alderdiak baititu, eta hizkuntza komunitateen eta gizarte hausturaren arteko liskarrak saihestearren, uste dugu beharrezkoa dela bi hizkuntzen jakintza orokor bat sustatzea, eta, hortaz, euskarari laguntzea dugu hainbat mailatan landu beharreko alorra, eguneroko bizitzan gaztelaniarekiko berdintasun handiagoa lor dezan.

Horregatik, gure iritziz, hizkuntza berdintasunaren ikuspegiari egin dakiokkeen mesederik handiena da Euskadin bizi diren pertsona guztiak diskriminatuta ez sentitzea, dela ez jakitegatik dela hizkuntza bat edo bestea erabiltzeagatik, hau da, pertsona guztiek, une oro, hizkuntza eskubideak zorrotz errespetatzen dizkietela sentitzea.

Hori dela eta, Administrazio publikoak aukera eman behar du zerbitzu publikoetan herritarrei arreta bi hizkuntzetako edozeinetan eskaintzeko, eraginkortasun eta lastertasun beraz. Administrazio publikoan euskarazko arreta gero eta sendoagoa da, eta pausoak ematen ari dira % 100 bermatuta egon ahal izateko. Enpresa pribatuan, ordea, ez dute egiten bi hizkuntzak elkarren ondoan maila berean bizitzeko behar adina, ez eta erabiltzaile edo bezeroekin harremanak euskaraz izateko ere.

Bi guneetan, hizkuntza berdintasunaren alde egiten du CCOOk, biotan jendeak, gainditu beharreko harresiak barik, zeharkatu beharreko zubiak direla pentsatu behar duelakoan. Horrexek bermatzen du euskararen hedapena, benetan eta egunero zabaltzea, oinarri bakartzat hartu gabe azterketak edo probak gainditzea, gero, euskara eskakizun den eremuetan ez erabiltzeko.

Alde horretatik, estrategikotzat jotzen dugu diskriminaziorik gabeko pizgarri bat, euskaraz ez dakitenek ikasteko gogoia sentitu ahal izateko. Arriskuan jar daiteke hizkuntza bizikidetzara euskaraz dakitenek ez badarabilte, baina are arrisku handiagoan jarriko dugu ez dakitenak ikastera adoretuta ez badaude.


## 2 - Euskara, enplegarritasuna eta klase arrakala


Gaur egun, gure lan merkatuaren ikuspegitik, esan dezakegu euskara lana lortzeko faktore bat dela.

Administrazio publikoan hala izan ohi da, baina enpresa pribatuan ere gertatzen ari delakoan gaude, lanpostu jakin batzuetarako eskatzen dutelako, esate baterako, jendea artatzearekin zerikusia duten postuetan.

Euskara ahoz menderatzen duela dioen populazioak goranzko joera du. Gainera, pertsona kopuru esanguratsu bat euskaldun pasibotzat jo dezakegu, hau da, euskarazko elkarrizketa bat ulertzeko gai den personatzat.

Guztira, Euskadiko biztanleen erdiak baino gehiagok euskaraz daki, gutxi-asko; hortaz, euskal hiztun pasiboen taldea euskararen erabilera zabaltzeko orduan eragin beharreko pertsona multzo ageriko bat izango da; izan ere, euskara nola edo hala jakiteak motibazio handieneko pertsona bihurtu ahal ditu erabiltzen hasteari dago-kionez, eta, horretarako, jakina, ikaskuntza aldi luzeago edo laburrago bat behar izango dute, nork bere ego-eraren arabera.






Zentzu horretan, CCOOkoek tresna positibotzat jotzen dugu 2017az geroztik Lanbiden abian jarritako programa, langabetuei euskarazko moduluak ematea xedatzen baitu.

Lanbidekerak eskaintzen dizkigun datuetatik ondorioztatzen da gai honen garrantzia, eta, erakusten dutenaren arabera, klase arrakala batzatz jo daiteke, hizkuntza jakiteari edo egiaztatzeari dagokionez, behintzat. Estatistika ofizialen arabera, langabezia dauden pertsonen % 90 batek ez du euskara nahikoa menderatzen, beraz, premiazkoa da herritar guztiek eskuratu ahal izatea. Planteatzen duguna guztiz beharrezkoa da, klase arrakala hori gainditzeko, eta behar den inbertsio ekonomikoa Lanbidekerak egitea justifikatzen du.

## Langabeen eta biztanleria orokorraren ehunekoak, adinaren eta euskara-mailaren arabera, Euskadin



## 2.1 Euskara doan ikastera jotzeko urratsak

Esan dezakegu pertsona batzuek desabantaila handiak dituztela, hasiera-hasieratik, euskara lana lortzeko faktore gisa erabili ahal izateko.

Hori dela eta, Lanbideek langabeei ikastaroak erabat doan emateaz gain, euskaltegien matrikulazio prezioak merkatu beharra dagoelakoan gaude.

Matrikulazioa bera doakoa izateko pausoak eman daitezke, gehienez ere, ikastaroko 72'36 euroko prezio bat ezarrita (Hizkuntza Eskola Ofizialaren tasa ofiziala). Ikastaroan emaitza onak lortuz gero, hau da, ziurtagiria eskuratu ondoren, kantitate hori berreskuratzeko aukera legoke.

C1 mailaraino planteatzen dugu eredu hori, eta, gure ustez, beharrezkoa da administrazio publikoan eta sektore pribatuan egiaztatze maila hori eskatzen duten milaka lanpostu daudelako.

Uste dugu finantzatu ahal izateko modukoa dela, maila jakin batzuk hezkuntza arautuan dagoeneko egiaztatzen ari direlako; beraz, neurriaren inpaktu ekonomikoa nabarmen gutxituko da.

Kontuan izan behar dugu euskaltegietako gaur egungo matrikulazioa, ikasturte bakoitzean, 35.000 ikasle ingurukoa dela. Eta kuotetatik, urtean, 16 bat milioi biltzen dituzte. Kuota horietako batzuk, aldeztu, dirulaguntza publikoen bidez ordaintzen ari direla kontuan hartuta, arazorik gabe ordaindu daitezkeen kopuruez ari gara.

Gogoan izan behar dugu doakotasuna, hemen planteatutako ereduaren antzeko bati jarraituta arabera, Eusko Jaurlaritzaren egungo legegintzaldiko programan agertzen dela, B2 mailaraino, eta programaren parte hori ez dutela betetzen une honetan. Ildo horretatik, gaur egun, alderdi horietako batzuk arautuko dituen lege proposamen bat izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean.

## 2.2 Euskara enpresa pribatuan doan ikasteko EUSKERALAN liberazio programa

Beharrezkotzat jotzen dugu, halaber, enpresa pribatuan euskara modu eraginkorrean erabili eta hedatzeko pausoak ematea, eta ez soilik administrazio publikoan, hizkuntza jakitea lana lortzeko faktorea baita bi eremuotan.

Eta denbora (matrikula kostua ez ezik) pertsona helduek ikasteko funtsezko baldintzatzaile bat denez gero, urtero euskara ikasteko liberazio programa bat antolatzea proposatzen dugu (irakasleentzako lraleren modukoa); zenbait kasutan, osoak izan litezke, eta, beste kasu batzuetan, partzialak. Beharrezkoa litzateke Eusko Jaurlaritzak neurri hori finantzatzea, Hobetuzen bidez edo horretarako sortutako beste mekanismo bat erabilita.

Langile bakoitzak gehienez har dezakeen ordu kopurua langilearen hasierako mailaren eta enpresan behar duen mailaren araberakoa izango da. Administrazio publikoan indarrean dagoen sistema erreferentziatut hartuta, 60 eta 2.430 ordu bitartekoa izan daiteke (ikus Eusko Jaurlaritzaren 2005eko azaroaren 30eko Agindua)<sup>1</sup>.

---

<sup>(1)</sup>AGINDUA, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. Agindu honen bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak.



### Administrazio publikoetako ordu-kredituen taula (2005eko azaroaren 30eko Agindua)

	Hasierako maila <sup>(2)</sup>	B1	B2	C1	C2
<b>Euskalduntzea</b>	101	1.210	1.710	2.430	2.730
	102	1.030	1.600	2.210	2.510
	103	890	1.330	2.020	2.320
	104	770	1.150	1.810	2.110
	105	550	930	1.530	1.830
	106	490	760	1.210	1.510
	107	380	610	1.190	1.490
	108	320	490	880	1.180
	109	210	420	730	1.030
	110	160	370	590	890
	111	110	210	470	770
	112	60	160	340	640
<b>Alfabetatzea</b>	201	320	350	500	800
	202		320	370	670

<sup>(2)</sup>Hasierako ezagutza probaren arabera lortutako hasierako ezagutza maila. Zenbaki kode progresibo eta goranzko baten bidez identifikatzen da, ezagutza maila txikienetik handienera.

## **3 - Euskaltegi sarean hobetu beharrekoak**

Esparru hoentan, euskaltegien sare publikoa indartzea da gure helburu nagusia, euskara ikasteko doako eskubide unibertsala bermatzeko funtsezko bektore gisa. Deitoratzen eta gaitzesten dugu, gaur egun, zerbitzu publiko hori sare pribatuaren esku egotea, nagusiki (matrikula eta ikasleen % 80).

### **3.1 Eskainitako ikastaroen eta ordutegien tipologia koordinatzea**

Gure ustez, euskara ikastaroetan matrikulatu nahi dutenen eskaria asetzen du euskaltegien eskaintzak. Urtean, 35.000 pertsona inguru matrikulatzen dira gure euskaltegi sarean. Errazago ikasi ahal izateko, lineako formulak eta erdi-presentzialak dituzte.

Gure euskaltegien sareak ondo funtzionatzen duelakoan gaude, baina HABEk (pertsona helduei euskara irakasteko erakunde publikoa) une bakoitzean euskaltegietan egon daitekeen eskaintzaren inguruko koordinazio handiagoa eratu behar duela uste dugu, hala, ikastaro ordutegi eta ezaugarriak optimizatuta, gaur egun dagoen eskariari erantzuteko.

Herri batean maila bereko edo antzeko mailako ikastaldeak eratzea bermatzea da koordinazio hobekuntza horren helburuetako da, esate baterako, ez oztopatzeko bidaiatu beharra duten pertsonen euskara ikastea.

### **3.2 Sektoreko lan baldintzak**

Oso bestelakoa da sektoreko lan baldintzei buruz dugun iritzia. Gure ustez, gure euskaltegi sareko irakasleen ordainsari mailetan alde handia dago gaur egun, eta, lehenik eta behin, bereizi beharra dago publikoak edo pribatuak diren eta, bigarrenik, pribatuen artean, euskaltegia fundazioa edo kooperatiba den.

Gaur egun 1.500 bat irakasle daude, eta administrazioari langileak gehitu beharko genizkieke horiei. Erraz zardaritzeko moduko zerbitzu dugu aipagai. Beharrezkoa da hitzarmen kolektibo batek pertsona horien guztien lan baldintzak arautzea, hizkuntza eskola ofizialetako irakasleen lansari mailarekin parekatzeko.

Esan dezakegu soldata diskriminazioko egoera bat dugula euskaltegi publikoetako (guztiak udalena dira) irakasleen eta pribatuak diren irakasleen artean, alde handiak dituztelako. Hortaz, gerta daiteke helduak euskal-duntzeko sare pribatua erakargarri ez izatea euskara irakasle izan nahi dutenentzat.

## 4 - Euskara jakitea egiaztatzea, “agirizentrismoa” eta errebalida sistema gaindituta

Berrazterketa lasai bat behar du euskara maila egiaztatzeko egungo sistemak. Lehen begiratuan, egiaztapen eta agiri sistema erabiltzearen ondorioz gertatzen diren gehiegikeria batzuek ez dute sustatzen euskara zenbait gizarte sektoretan erabiltzerik, eta frustrazioa sortzen du, eskakizun gramatikalak direla-eta eskakizun bateko azterketa gainditu ezin delako, are euskaraz ondo hitz egin eta administrazio publikoan eskatutako arreta egin dezaketenean ere. Izan ere, euskara ondo hitz egiten (% 28) edo ulertzen dutenen (356.000) ehuneko txiki batek besterik ez du egiaztatu hizkuntza eskakizunen bat. Euskadin, 16 urtetik gorako biztanle guztien % 12k B2 edo goragoko maila egiaztatu du.

### Hizkuntza eskakizunen erregistro bateratuko pertsonak. 2017

Maila	Pertsona kopurua
B1	50.952
B2	55.641
C1	163.112
C2	4.785
<b>Guztira</b>	<b>274.490</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Egoera hala, ez da eraginkorra, gure aburuz, azterketa gramatikal bat gainditzearen bidez hizkuntza eskakizuna egiaztatzen ez duenak lanpostu publikorik lortu ezin izatea. Ez da ulergarria, eta ez du hizkuntza bultzatzen laguntzen, ziurtapen sistemek euskara erabiltzeak berak baino garrantzi handiagoa hartzea. Beraz, beharrezkoa da egiaztapen sistemak ikuspegi komunikatiboagoa eta ez hain formala izatea.

Ikusmolde filologiko eta gramatikal-formalista agortzaileetan oinarritutako edozein hizkuntzaren maila eta erabilera egiaztatzea arazo bat da termino horietan gainditu beharreko azterketa bati aurre egin behar dion pertsonarentzat. Gainera, arazotsua da nahiz prestakuntza etengabea jaso berri duten hiztun berrientzat nahiz euskara menderatzen duten euskaldun zaharrentzat ere, hizkuntza prestakuntza espezifikorik ez badute ere.

Azken urteotan, aurrerapauso erabakigarriak izan dira. Gaur egun, euskarazko unibertsitate karrera bat ia osorik euskaraz egiteak C1 maila egiaztatzeko balio du. Batxilergoan, B2 maila lortzen dute, eta DBHri gagozkiola, ordea, B1 maila.

Erreferentzia gisa, Kataluniako eta Galiziako hezkuntza sistemetan, C1 maila batxilergoa eginda lortzen dute. Zalantzarik gabe, egokiagoak dira, gure hizkuntza errealitateagatik, euskal hezkuntza sisteman indarrean dauden egiaztatze mailak.

Azterketa ofizialak egitearen truk euskara maila egiaztatzeko sistema horri dagokionez, kontuz ibili beharra dago proposamen atzerakoiekin, baliokidetz horiek kentzeaz gain, azterketa bidezko hizkuntzazko errebalida sistema bat ezarri nahi baitute, eta, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren egiaztagiria lortzea baldintzatu dezake horrek, adibidez. Gure ustez, planteamendu arriskutsu bat da, eta milaka gazte titulaziorik gabe utz litzake.

Horregatik guztiagatik, gure ustez, egiaztatze sistemaren zenbait alderdi azter daitezke, hobetzeko asmoz:

- Eskakizun bakoitza egiaztatzeko azterketak komunikazioaren ikuspegitik eratzea eta zuzentzea: beharrezkoa da ikuspegi komunikatiboagoak eta ez hain formal eta gramatikalak izatea (duela gutxi kendutako EGAn bezala).
- Hizkuntza gaitasuna lanpostuan jardunda aitortzea: euskaraz arreta eskatzen duten pertsoneri hura ematerakoan komunikazio trebetasunak erakusteko aukera dago eguneroko jardunean. Eredu hori (*ebaluazio performatiboa esaten zaio*) Kanadan darabilte, dagoeneko. Mekanismo horren bidez, dagokien mailaren arabera euskaraz lan egiten duten ala ez egiazta daiteke.
- Euskaltegietan etengabe ebaluatzea: prestakuntza programa askotan darabilte, dagoeneko, sistema hori. Urratsak egiten ari diren arren, euskara maila guztiak egiaztatzeko ere zabaldu beharko litzateke modu hori.

## **5 - Hizkuntza eskakizunak, aldaketak eta *belarriprest* izatea onartu beharra duen sistema ezinbesteko bat, elkarbitza eleaniztun bat lortuko badugu**

Beharrezko tresna da hizkuntza eskakizunen sistema, hizkuntza aniztasunari arreta egokia emateko. Baina saihestu egin behar dugu zehaztugabetasunak sortzea, dena delako administrazio publikoak jardun ez dezan arlo honetan zaindu beharreko zeharkako adostasunetik urrun.

Gure ustez, Euskadin bi hizkuntza daudenez eta biak ofizialak direnez gero, beharrezkoa da horiek jakitea eta erabiltzea errealitate soziolinguistikoarekin bat datozen proportzioan eta bideetatik egiaztatzea. Horregatik, helburu jakin batzuk izan behar ditu oinarritzat eskakizunen sistemak:

- Administrazioan arreta bermatzea bi hizkuntza ofizialetan
- Euskararen erabilera orokorra aurreratuz joatea bermatzea
- Sektore publikoan, langileen lan aukerei eustea, euskara menderatu ez arren edo, jakinda ere, eskakizuna egiaztatu ezin izan badute.

Gure ustez, enplegu publikora iristeko irtenbidea ez da lanpostu jakin batera sartzeko behar den euskara eskakizuna handitzea. Eskakizunak aldi behin iraungitzea eta berriro azterketa egin behar izatea proposatzen dute Muturreko jarrera batzuek (garai batean, bitarteko langileen lehen eskakizunarekin bezala), eta eskatutako gutxieneko maila B2 izatea ere (B1=1HE duten lanpostuak kenduta).

Bestalde, beharrezkoa da kontuan hartzea hizkuntza eskakizunen sistematik kanpo ere badela euskaraz jakitea egiaztatzeko modua. Duela gutxi izan zen Euskaraldia izeneko esperientziak, euskara eguneroko bizitzara ekartzean oinarrituta, zerbait erakusten digu horri buruz, euskara guztiz ondo hitz egin ez arren ulertzera irits daitezkeen “belarriprest” deritzenen ahaleginari eta jarrerari balioa emanda.

Bien bitartean, egungo eskakizun sistemak ez dio inolako aitorpenik egiten B1 maila arte egindako ikaskuntzari (900 ordu, HABE curriculumaren arabera). Egiaztatutako euskara maila, gaur egungo eskakizunak baino txikiagoa, neurtu eta baliotu egin daiteke, administrazio publikoan lan egin ahal izateko.

Halaber, ez dugu irtenbidetzat jotzen eskakizunak lanpostu guztietara bereizketarik gabe zabaltzea. Neurri horiek ez datoz bat Euskadiko errealitate soziolinguistikoarekin, eta gizartetik urrun dagoen administrazio publiko bat eratzen laguntzen dute.

Arreta euskaraz jaso nahi duten pertsona guztiek hala jardun ahal izatea izan behar du helburutzat Administrazio publikoak. Hala ere, administrazio publikoko langile guztiek nahitaez euskara menderatu behar izatea, gaur egun lanpostu publikoetara iristeko eskaturiko mailetan, garai batean lortutako adostasunen aurka doa, zenbait kasutan.

Horrekin lotuta, Eustatetik datozen datuetan oinarritzen da berehala hizkuntza eskakizunen bat eskatu beharreko administrazio publikoko lanpostuen egungo kalkulu sistema.

Hizkuntza eskakizunen beharra kalkulu indize baten bidez esleitzen du sistema horrek. Euskaraz dakitenak gehi euskara ulertzen dutela diotenen erdiak —hau da, euskaldun pasiboak— sartzen dituzte indize horretan.

Gure ustez, askotan, ez dute errespetatzen sistema hori. Askotan, gutxienekotzat jotzen dute emaitzaren kopurua zenbait udalek eta diputaziok, hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak zehazteari dagokionez, indarrean dagoen araudiak "nahitaez bete beharreko indizea" dela adierazi arren. Halakotzat hartzerakoan, % 100a arte handitzen dute hizkuntza eskakizuna berehala egiaztatu beharra duten lanpostuen kopurua administrazio horiek.


Adostasunean oinarritutako hizkuntza politika bat nahi badugu, ez dira onargarri horrelako arbitrariotasunak. Eta ez litzateke onargarri bi aldetatik: batetik, lanpostu kopurua gehiegi handituta; bestetik, ez eta kopurua gutxiagotuta ere, besterik gabe, benetako eskariaren aldean.

Gainera, gabeziak erakusten ditu indizea kalkulatzeko egungo formulak, herritarrek administrazio publikoari euskaraz arreta jasotzeko duten benetako eskaria neurtzearen aldetik, erabilera errealairen aldagaia ez baitu jasotzen. Hogeigarren mendeko azken hamarkadetan, funtsatuta egon zitekeen hori, baina ez du oinarririk administrazio digital batean, neurketa ahalmen izugarriak dituen gero.


Horregatik guztiagatik, gure ustetan, hizkuntza eskakizunen sistemaren zenbait alderdi azter daitezke, sistema bera hobetzeko:

- Hizkuntza gaitasun guztiak eta ikasketa maila guztiak baliotzea: A1 eta A2 mailak, bai eta ulertzeko gaitasuna ere, kontuan hartu beharrekoak dira eskakizunen sisteman; izan ere, ezinbestekoa da, halaber, euskara ikastera hurbiltzen diren (belarriprest) guztien ahalegina eta jarrera neurtzea ere.
- Euskara ikasi behar duten pertsonen liberazioen kostuaren % 100 IVAPek ordaintzea, euskara menderatzen duten biztanle gutxien duten udalek egun pairatzen duten zigor ekonomikoa saihesteko. Hutsik dauden bitarteko postuetako langileak ere hartu behar ditu berme horrek.
- Hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetarako kalkulu modu berria: kontuan izan beharra dago benetan zein zerbitzu eskari dagoen hizkuntza bakoitzean eta zein langile ehunekok duen hizkuntza eskakizuna egiaztatuta, egun eskaera hori neurtzeko baliabide teknikoak eta erregistrokoak daude eta. Beraz, eskari hori eta administrazio publiko bakoitzaren baliabideak ezagutu beharko genituzke, eta horiek neurtzeko behar diren baliabideak ezarri. Alde horretatik, gure proposamena da benetako eskariaren gainetik ehuneko 10 puntu baino gehiago den "nahitaez bete beharreko indize bat" erreferentziatzat jartzea, hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetarako. Nolanahi ere, adostutako politika bati eusteko, nuklearra da "nahitaez bete beharreko indize" moduan araudiak adierazten dituenak errespetatzea (+/- % 2), "gutxieneko bete beharreko indize" bihurtu eta administrazio bakoitzean tentsioak ez sortzeko.

## Eusko Jaurlaritzan, Zuzenean, egindak izapideak, hizkuntzaren arabera. 2016




## Osakidetzan, hizkuntzaren arabera ahoz komunikatzeko lehentasuna duten pazienteak



- Gardentasuna benetako eskariari buruzko datuei dagokienez: ezinbestekoa da, erabat, administrazio publikoek langileen legezko ordezkariari herritarrek benetan egiten duten eskaerari buruzko datuak ematea. Mintzagai dugun datu horrek eragina du enplegu publikora sartzeko aukeran, langileriaren lan baldintzetan eta hizkuntza eskakizun jakin bat duten lanpostuak esleitzean, eta nahitaezkoa da alderdi horietan guztietan langileen legezko ordezkariak esku hartzea.
- Hizkuntza eskakizuna egiaztatzen ez duenari enplegu publikora iristeko benetako aukera aitortzea, eskakizuna egiaztatzeari, gehienez ere, merezimenduen atalaren % 10eko balioa emanda, enplegu eskaintzetan eta lanpostuak hornitzeko deialdietan (ez aldi baterako zerrendetan). Eta, nolana ere, legegintzaldi bakoitzean, langile publiko finko izatea lortzen duten langileen hizkuntza ezaugarriak aztertzea, gure politiken benetako ondorioak ebaluatzeko nahiz hizkuntza arloko adostasunaren ikuspegi plural eta ez baztertzalea errespetatzen ote den aztertzea.

## Gaunditu eta lortu diren plazak, hizkuntza-eskakizunik gabe.

### Eusko Jaurlaritzaren oposizioak 2010



Gaunditzen dutenen %34k ez du hizkuntza eskakizunik, ez eta plaza lortzen dutenen %12k

Iturria: Eusko Jaurlaritza  
Geuk egina Geuk egina

- Lanpostu bat benetan betetzeko beharrezkoak ez diren eskakizunak ezabatzea: lanpostu bakoitzerako beharrezkoak diren ahozko eta idatzizko trebetasunak bereizi behar ditugu, eta, kasu batzuetan, ahozko maila eta idatzizko maila bereizten dituzten profil mistoak erateraino hel gitezke. Lanpostuan moldatzeko, gerokultore gisa hirugarren adineko etxe batean edo eskola jantokian begirale gisa lan egiten duen pertsona batek beharrezkoa izan dezake ahozko goi maila izatea, baina, idatziz, halako handia ez den maila bat izan, hala ere, egunero lanpostuan jarduteko beharrezko izango ez duelako. Hortaz, zentzugabekeria litzateke halakoari idazmenean maila handia egiaztatze eskatzea, eta gainera horrek baztertzat dituzten funtzionalki agrafuak diren hitzunen trebeak (idazteko zailtasunekin). Horregatik, beharrezkoa da lanpostu bakoitzaren komunikazio erabilerak zehatz-mehatz zehaztea eta erreforma bat egitea, egungo egiaztapen sistema zurruna egokitzeko.
- 4. HEaren egungo gehiegizko hedadura berrikustea, nazioartean parekorik ez baitu. 2017ko datuen arabera, 4.785 lagunek egiaztatuta zuten, ordea, 3.072 lanpostutarako besterik ez dute eskatzen (horien artean, 888 hizkuntzaren profesionalenak dira).
- Aldi baterako neurriak ezartzea: gaur egun, administrazio publikoan, hizkuntza eskakizuna egiaztatze beharra duen pertsona talde bat dago, eta egiaztatu behar horrek zailtasunak sortzen dizkio. Beharrezkoa deritzogu 45/1997 Dekretuaren 42. artikuluko 2. paragrafoan 45 urtetik gorakoentzat xedatutako salbuespena langile finkoei ez ezik, bitarteko langileei ere aplikatzeari. Administrazio publikoko zenbait gunetan gertatu da bitartekotasunaren iraupenak emakumeengan eragin handiagoa izatea gizonengan baino, amatasunagatiko baja aldiak bat etorri direlako hizkuntza eskakizuna egiaztatze nahitaezko azterketa prestatzeko behar diren epeekin. Bi kolektiboek neurri berezien beharrean egon litezke, genero ikuspegia ere kontuan hartuta, eta aldi baterako epeak luzatzea ekar lezakete neurriok.



## **6 - Euskara Estatuko Administrazio Orokorrean, eginkizun dagoen defizit luze bat**

Gaur egun, Estatuko Administrazio Orokorrean hainbat gunek ez dute bermatzen herritarrei arreta euskaraz eskaintzea. Beharrezkotzat jotzen dugu urratsak eginez joatea, gune horietan euskara areago egoteko eta euskarazko arreta bermatzeko.

Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzea beharrezkoa den planteamendua izan behar du Administrazio publikoak, edozein arlotakoa izanda ere. Arazo korapilatsua da Estatuko Administrazio Orokorrean, gobernu zentralek izandako utzikeriaren ondorioz.

Alde horretatik, gogoratu behar dugu Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna sinatu duela Espainiak. Jarraipena egiteaz eta betetzen dela ebaluatzeaz arduratzen den adituen taldeak behin eta berriro dioenez egiten dituen txostenetan, Espainiak ez du betetzen edukia, eta, alde betetzen bada, Estatuko hainbat lurraldetan egiten den lanaren ondorioa da, baina ez Gobernu zentralak horretan egiten duen ahaleginagatik.

### **6.1 Estatuko Administrazio Orokorrek Euskadin arreta ele bitan ematea**


Beharrezkoa da Estatuko mahai sektorialean liberazio sistema ordaindu bat aztertzea. Eskubide hori eskuragarri egongo da euskara ikasi edo hobetu nahi duen pertsonarentzat; hala, arreta euskaraz jaso nahi duten pertsonak hizkuntza horretan artatzeko bidea zabaltzeko balioko du, azkenean, 10/1982 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarria betetzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritza eta Gobernu Zentralaren Euskadiko Ordezkaritza inplikatu beharra dago.

### **6.2 Eleaniztasunaren aldeko Estatuko legea**

Era berean, Estatuko hizkuntzen lege bat sustatzea aldetzen dugu, eleaniztasunaren aldekoa, erkidego guztien hezkuntza curriculumean hizkuntza guztiak egotea bermatzeko, nahikoa eskaria duten hizkuntza eskola ofizial guztietan hizkuntza koofizialak irakasteko, administrazio publikoetan arreta elebiduna antolatzeke, unibertsitateetan hizkuntza koofizialeko irakurleak izateko, Cervantes eta Etxepare institutuen arteko lankidetzak antolatzeke...


## DATUEN ERANSKINA

### Euskararen presentzia Euskadiko hizkuntza-politikak ebaluatzeko garrantzitsuak diren kolektibo/esparruetan



Geuk egina

## Langabeen eta biztanleria orokorraren ehunekoak, adinaren eta euskara-mailaren arabera, Euskadiko lurraldeetan



Oharra: Langabeen euskara mailari buruzko Lanbideren sailkapenak euskal hiztunak biltzen ditu oinarritzko mailara, bitarteko mailara eta goi mailara (3 maila), inkesta soziolinguistikoa ez bezala, azken honek euskaldun pasiboak eta euskaldunak besterik ez baitu bereizten (2 maila). Errazago alderatu ahal izateko, maila “ertaineko” hiztunak (½) euskal hiztun pasiboen eta euskaldun osoen artean banatu ditugu.